– Primavera. Se disfrutarán los días comprendidos en la Semana Santa o Semana de Pascua, a criterio de la Dirección, con un mínimo, en ambos casos, de 8 días naturales. La Dirección comunicará antes del 31 de diciembre del año anterior la fecha de disfrute de este periodo vacacional.

– Neguan. Abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra bitarte, biak barne.

Teknikari eta administrariarentzat zaintza-txandak erabaki ahal izango dira.

Inola ere ezingo dira sartu udako, udaberriko eta neguko oporraldietan beste edozein oporralditako egunak.

Oporretarako eskubidea izango dute enpresaren zerbitzura urtebete daramaten langileek.

Oporraldien hasieran urtebeteko epea –gutxienekoa– egin ez duten langileek opor osoak hartuko dituzte, baina enpresak dagozkien oporren zati proportzionala bakarrik ordainduko die, enpresaren Zerbitzuan lan egindako denbora-tartearen arabera.

### 29. artikulua. Langileen lanaldia.

Lanaldia benetako 35 lanordukoa izango da astean.

Langile artistiko eta tekniko-administratibo guztiei 1.592 ordu dagozkie urteko zenbaketan.

35 ordu horietarik, langile artistikoei 22 ordu emango dituzte taldeko lanean eta 13 ordu banakako lanean.

Taldeko lanean emandako asteko 22 orduen zenbaketa lau astean behin egingo da.

Denboraldi bakoitzeko bi aldiz, lau asteko zenbaketa 88tik 100 ordu programagarria gehitu ahal izango da. Lau aste horietako soberako orduak aurreko lauastekotik, ondorengoetatik edo bietatik kenduko dira.

Hori gertatzen bada, zuzendaritzak proiektu baten berri emango du gutxienez ekainaren 1a baino lehen. Bigarren aldia gertatuz gero, irailaren 1a baino lehen jakinaraziko da.

Teknikari/administrariak dagokienez:

1. Lanaldia jarraitua edo zatitua izan daiteke. Lanaldi zatitua egingo dute lanpostuaren izaeragatik hala eskatzen dutenek eta, lanpostuaren izaerak lanaldi jarraitua ahalbidetzen badu ere, lanaldi zatitua egitea nahiago dutenek. Oro har, langileek beharizanen arabera egokituko dituzte beren ordutegiak, astelehenetik larunbaterako lanaldietan.

2. Orkestraren ohiko jarduerarekin lotura zuzena duten langileek jarduera horretara egokituko dute beren lanaldia.

3. Lanaldi jarraituaren artikulazioa:

a. Neguko lanaldi jarraitu arrunta 8 ordukoa izango da asteleheneetik ostegunera, eta sartzeko malgutasun-tartea 08:00etatik 09:00etara izango da, eta irteteko malgutasuna 15:30etik aurrera; eta 6 ordu eta 30 minutukoa ostiraletan, 08:00etatik 09:00etara sartzeko malgutasunarekin, eta irteteko malgutasuna 14:30etik aurrera. Salbuespen gisa, eta lanaldiari eragiten dioten aldaketen ondorioz, langilearen lanaldia hasi ahal izango da 7:30etik aurrera.

b. Udako lanaldi jarraitu arrunta 6 ordu eta 30 minutukoa izango da, 08:00etatik 09:00etara sartzeko malgutasunarekin, eta irteteko malgutasuna 14:30etik aurrera.

c. Eguneko lanaldia asteko zenbaketan ebaluatuko bada ere (35 ordu), oro har, ordu-konpentsazioak hilaren barruan konpentsatu beharko dira.

d. Langileek, beren zereginari lotutako premia jakinen bat izanez gero, lanaldia murriztu edo handitu ahal izango dute ordutegi arruntean, gehienez ere ordubete egunean, aparteko ordutzat hartu gabe, eta aurreko puntuaren arabera konpentsazioa izan beharko dute.

– Inbierno. Se disfrutarán desde el 24 de diciembre hasta el 6 de enero, ambas inclusive.

Para el Personal Técnico y Administrativo se podrán acordar turnos de guardia.

En ningún caso se podrán incorporar a los períodos vacacionales de verano, primavera e invierno los días procedentes de cualquiera de otros períodos vacacionales.

Tendrá derecho a las vacaciones el personal que lleve un año completo al servicio de la empresa.

El personal que no haya cubierto el período mínimo del año cuando tenga lugar el inicio de las vacaciones, disfrutará de las vacaciones completas, pero, la empresa únicamente le abonará la parte proporcional a las vacaciones que le correspondan, en función del tiempo trabajado al servicio de la empresa.

### Artículo 29. Jornada de trabajo del personal.

La jornada de trabajo será de 35 horas semanales de trabajo efectivo.

Para todo el personal artístico y técnico-administrativo, se corresponden, en cómputo anual 1.592 horas.

De estas 35 horas, el personal artístico destinará 22 horas a trabajo de conjunto y 13 horas de trabajo individual.

El cómputo de las 22 horas semanales de trabajo de conjunto se realizará cuatrisesemanalmente.

Dos veces por temporada el cómputo cuatrisesemanal se podrá incrementar de 88 a 100 horas programables. Las horas de exceso de este cuatrisesemanal serán restadas del cuatrisesemanal anterior, del posterior o de ambos.

Si ello se produce, la dirección informará al menos de uno de los Proyectos no más tarde del 1 de junio. De producirse un segundo periodo se informará no más tarde del 1 septiembre.

Con respecto al Personal Técnico/Administrativo:

1. La jornada de trabajo podrá ser continuada o partida. Realizarán jornada partida aquellas personas que por la naturaleza de su puesto así se requiera, y aquellas que, aunque la naturaleza de su puesto permita la jornada continuada, prefieran realizarla partida. De forma general, el personal adaptará sus horarios en función de las necesidades para cumplir sus tareas, en jornadas de lunes a sábado.

2. El personal cuyo servicio esté directamente ligado a la actividad ordinaria de la orquesta, adaptará su jornada a esa actividad.

3. Articulación de la jornada continua:

a. La jornada continua ordinaria de invierno será de 8 horas de lunes a jueves, siendo la franja de flexibilidad de entrada entre las 08:00 a las 09:00 horas y la flexibilidad de salida, a partir de las 15:30; y de 6 horas y 30 minutos los viernes con flexibilidad de entrada entre las 08:00 y las 09:00 horas y la flexibilidad de salida, a partir de las 14:30. Excepcionalmente, y motivado por alteraciones que afecten a su tarea, el personal podrá iniciar su jornada a partir de las 7:30.

b. La jornada continua ordinaria de verano, será de 6 horas y 30 minutos con flexibilidad de entrada entre las 08:00 y las 09:00 horas y la flexibilidad de salida, a partir de las 14:30.

c. Aunque el cumplimiento de la jornada diaria se evaluará en cómputo semanal (35 horas), de manera general, las compensaciones horarias que se produzcan deberán compensarse dentro del mes.

d. Ante necesidades puntuales vinculadas a su tarea, el personal, en horario ordinario, podrá reducir o incrementar su jornada hasta un máximo 1 hora al día, sin que suponga consideración de hora extra, debiendo tener su correspondiente compensación según el punto anterior.

4. Aurreko lerrokada batean adierazitako urteko zenbaketaren barruan sartzen dira, eta, beraz, ordainduak izango dira, atsedernaldiak eta otorduak hartzeko denborak; guztira, ezin izango dira 30 minututik gorakoak izan 7 ordutik gorako eguneko lanaldi jarraituetan, ez eta 20 minututik gorakoak ere 6 eta 7 ordu bitarteko iraupena duten lanaldi jarraituetan. Jendaurreko langileen kasuan, lanaldi osoan gutxienez pertsona bat egongo dela bermatuko da.

5. Langileen proposamenak entzun ondoren, Zuzendaritzak urtero finkatuko du lan-egutegia aurreko urteko azaroaren 1ean. Udako aldia ekainaren 16ko astetik aurrera izan daiteke, eta egutegiko urteko orduen banaketaren arabera iraungo du.

### 30. artikulua. Ordu-zenbaketa.

Ordu-zenbaketarako, taldeko ordutzat joko dira entsegu, proba akustiko, kontzertu eta grabazioetan emandakoak.

Halaber, taldeko ordutzat joko dira bidaietan eta atsedendietan emandako ordu guztiak, Orkestrak egoitza-hiritik kanpo antzeztu behar duenean baina gaua egoitza-hiritik kanpo ematea beharrezkoa izan gabe.

### 31. artikulua. Langileen gehieneko lanaldia.

Langile artistikoen eguneko gehieneko lanaldia –taldeko lanorduek– zazpi ordukoa izango da. Teknikari eta administrarien eguneko gehieneko lanaldia ez da izango bederatzitik gorakoa.

### 32. artikulua. Postuak aukeratzea.

Atalen barneko zerbitzuetan bete beharreko postuen antolamendua txandakatzeko bidez egingo da, musika-zuzendari edo -aholkulariaren kontrolaren eraginpean. Musika-zuzendari edo -aholkulariak aukeratu ahal izango du musikari bakoitzari zer postu dagokion programa bakoitzean. Musika-zuzendari edo -aholkulariari dagokio, eskusiboki, musikariaren postuak aldatzeko eskumena, baita lehen eta bigarren biolinaren atalen barnean lerroko biolinistak aukeratzeko ere.

Eraketa osoa ez bada eszenatokian sartzen, bi bakarlariek antzeztuko dute programa, eta areagotzeen bidez kontratatutakoak kenduko dira, hala badagokio, eta horien ondoren, azken atrilak. Programaren eskakizunak direla-eta beharrezkotzat jotzen bada Orkestra murriztea, areagotzeen bidez kontratatutakoak kenduko dira lehendabizi; horien ondoren, bakarlarietako bat edo lehen tutia; horien ondoren, azken atrilak.

### 33. artikulua. Jardueren plana.

Orkestraren kontzertu, emanaldi eta jardueren Plan Orokorra –hurrengo denboraldikoa– informazio-aurrerapen gisa emango da ezagutzera, beranduenez ere aribidean den denboraldiko udaberriko oporren ondorengo lehen lan-asteen.

Ekainaren 1ean, zuzendaritzak langile guztien eskura utziko ditu hastear den denboraldiaren xehetasunak, aplikazioen bidez, hala nola OPAS edo antzeko beste bat.

Ekainaren 15ean, ataletako bakarlariek plantilla nominatiboan proposamena entregatuko diote zuzendaritza teknikoari, eta premia guztiak zuzendaritzari. Proposamen horiek musika-zuzendariarekin eztabaidatuko dira, eta azkenean, musika-zuzendariak berretsi edo aldatu egingo ditu, ahal dela, denboraldiko lehen abonamendu-programa baino lehen.

Denboraldia igaro ahala, musika-zuzendariak behin-behineko proposamenak aldatu ahalko ditu, aldaketan eta premien arabera.

### 34. artikulua. Langile artistikoen zerbitzuak.

1. Informazioa. Zerbitzuak –horien ordutegiekin– eta eraketak –tresna-familia bakoitzeko irakasleen kopurua barne hartuta– (edota adierazpen nominatiboa baldin eta musika-zuzendari

4. Dentro cómputo anual indicado en un párrafo anterior se entiende incluidos, y por tanto son remunerados, los tiempos destinados a descansos y comida que, en total, no podrán superar los 30 minutos en jornadas continuas diarias superiores a 7 horas ni los 20 minutos en jornadas continuas diarias cuya duración esté entre 6 y 7 horas. Para el caso del personal de atención al público se garantizará la presencia de al menos una persona en toda la jornada laboral.

5. Oídas las propuestas del personal, la Dirección fijará anualmente el calendario laboral a 1 de noviembre del año anterior. El periodo de verano podrá ser desde la semana del 16/junio, y durará en función del reparto de horas anuales en calendario.

### Artículo 30. Cómputo horario.

A efectos de cómputo horario se considerarán horas de conjunto las efectuadas en ensayos, pruebas acústicas y conciertos, y grabaciones.

Se considerarán así mismo como horas de conjunto el total de las horas invertidas en los desplazamientos y descansos cuando la orquesta actúe fuera de la ciudad sede sin que se requiera pernocta.

### Artículo 31. Jornada máxima del personal.

La jornada diaria de trabajo en conjunto del personal artístico será como máximo de siete horas. La jornada diaria del personal técnico y administrativo no podrá exceder de nueve horas.

### Artículo 32. Designación de puestos.

La organización de los puestos a ocupar en los servicios dentro de las secciones se hará por rotación bajo el control del Director o Asesor Musical. Este podrá designar el puesto que ha de ocupar cada músico en cada programa. La variación de puesto de los músicos será exclusiva competencia del Director o Asesor Musical, así como la asignación de los violinistas de fila dentro de las secciones de primeros y segundos violines.

Cuando en algún escenario no quepa toda la formación que existe, interpretarán el programa los dos solistas y se retirarán los contratados por aumentos en su caso, seguidos de los últimos atriles. Si por exigencia del programa se hace necesaria la reducción de Orquesta, ésta se iniciará por los aumentos contratados y seguirá por uno de los solistas o primer tutti, y luego por los últimos atriles.

### Artículo 33. Plan de actividades.

El Plan General de conciertos, actuaciones y actividades de la Orquesta de la siguiente Temporada se dará a conocer con carácter de avance informativo no más tarde que la primera semana laboral después de las Vacaciones de Primavera de la Temporada en curso.

A 1 de junio, la Dirección pondrá a disposición de todo el personal el detalle disponible de la Temporada entrante, vía aplicaciones tipo OPAS o similar.

A 15 de junio, los Solistas de cada Sección entregarán a la Dirección Técnica, su propuesta provisional de plantillas nominativas y todas las necesidades a la Dirección. Estas propuestas serán discutidas con el Director Musical, y finalmente refrendadas o modificadas por este último preferentemente antes del primer programa de abono de temporada.

Las propuestas provisionales podrán ser modificadas por la Dirección Musical, en función de los cambios y necesidades, a lo largo de la Temporada.

### Artículo 34. Servicios del personal artístico.

1. Información. Los servicios con sus horarios y las formaciones con indicación del número de profesores por familia instrumental, (o indicación nominativa si el Director o Asesor Musi-

edo -aholkulariak hitzarmen honek ematen dizkion ahalmenak baliatzen baditu) iragarki-taulan jakinaraziko dira eta langile guztiak derrigor-tuta egongo dira horren jakinaren gainean egotera.

Enpresaren zuzendaritzak zerbitzu-antolamenduaren alorreko jokaera helaraziko die zuzendari gonbidatuei, artikulua honekin arautzen den moduan.

2. Ordu-tegiak. Entseguak lehenetsunez goizetik egiteko moduan antolatuko ditu zerbitzuak enpresaren zuzendaritzak Entseguak arratsaldean egin behar direnean, baldin eta horren arrazoiak koruek entseguetan parte hartu beharra bada, lanaldia arratsaldeko zerbitzu bakar batean egingo da.

Zerbitzu, entsegu, kontzertu eta grabazioetarako ordu-tegiak hiru asteko aurrerapenez emango dira aditzera, Orkestraren tresna-eraketarekin batera.

Enpresaren zuzendaritzak ordu-tegi horiek aldatu ditzake aparteko zirkunstantziak direla eta.

Aldaketa konpentsagarritzat joko dira:

a) Lanean ordu gehiago eman beharra dakarren ordu-tegi-aldaketa.

b) Zerbitzuak goizetik arratsaldera eta alderantziz aldatzea, hirurogeita hamabi orduko aurreabisu bat ez badago tartean (koruen premiek eragindako aldaketak salbuetsita geratzen dira).

c) Programatu gabeko zerbitzuak ematea.

Kompentsatu beharreko denbora honako hau izango da:

– (a) atalerako, ordu gehituak.

– (b) eta (c) ataletarako, zerbitzua emateko sartutako orduak.

Aldaturiko denbora konpentsatu egingo da:

– (a) eta (b) ataletarako, oinarriko ordu-prezioaren gaineko % 25eko gainkargua ordainduz; edo bestela, 62. artikuluan araututako ordu-poltsara bideratuz, 1,75eko koefizientea aplikatuta.

– (c) atalerako, aparteko ordu-tzat hartu eta halako gisa abonatu edo konpentsatuko dira eta, ondorioz, ez dira ordu-zenbaketan sartuko.

3. Ordu-tegi-mugak.

– Lana egunean zerbitzu bat edo bi emanez egingo da, eta 09:00etatik biharamuneko 01:15era bitartean gerta daiteke. Zerbitzu horiek bi ordu-tatik lau ordu-ra bitarteko iraupena izan dezakete, eta entsegu orokor, entsegu aurreorokor edo ikuskizun lirikoaren kasuan, bost ordukoak ere izan daitezke. Aldez aurretik bukaera-ordurik finkatuta ez duten entsegu orokorrak emanaldia bukatzen den unean joko dira amaitutzat.

– Goizeko entsegu-zerbitzuak ezingo dira 14:30 baino goerago amaitu, eta arratsaldekoak ezingo dira 15:00ak baino lehenago hasi.

– Lanean sartutako taldeko orduen zenbaketarako, 24:00ez geroko ordu eta zatiei 1,5eko koefizientea aplikatuko zaie. Zatiak ordu-laurdeneko bloketan hartuko dira kontuan.

4. Etena eta atsedanak.

Bi zerbitzuren artean gutxienez bi orduko etena egin behar da.

2 orduko zerbitzuek 15 minutuko atsedenaldira hartzen dute barne; 3 ordukoek 20 minutuko atsedenaldira; 3 ordu eta erdi-koek 25 minutuko atsedenaldira edo eta 15 minutuko bat eta 10 minutuko beste bat; 4 ordukoek 15 minutuko bi geldialdi edo 30 minutuko bakarra eta 5 ordukoek 20 minutuko bi edo 40 minutuko bakarra; zerbitzuaren iraupena arestian aipatutako ezein ez bada, deskribatutako modu proportzionalean egingo dira atsedenaldirak. Musika zuzendariak edo aholkulariak finkatuko ditu atsedenaldirak, eta gehienez ere ordu-bete eta hogeita ha-

cal usa de las facultades que el presente Convenio le concede) serán anunciados mediante su colocación en el tablón de anuncios, estando obligado todo el personal a su conocimiento.

La Dirección de la Empresa trasladará a los directores invitados el proceder en el ámbito de organización de los servicios según se regula en este artículo.

2. Horarios. La Dirección de la Empresa organizará los servicios de tal forma que los ensayos se realicen preferentemente de mañana. Cuando los ensayos deban realizarse por la tarde y si, además, esta circunstancia es motivada por la participación de coros en los ensayos, la jornada de trabajo se realizará en un solo servicio de tarde.

Los horarios de servicios, ensayos, conciertos y grabaciones se darán a conocer, juntamente con la formación instrumental de la Orquesta, con una antelación de tres semanas.

Estos horarios podrán ser modificados a juicio de la Dirección de la Empresa por circunstancias excepcionales.

Tendrán la consideración de modificaciones compensables:

a) Modificación de horarios que supongan un incremento de horas a trabajar.

b) El traslado de servicios de mañana a tarde y viceversa, cuando no medie un preaviso de setenta y dos horas (se exceptúan las modificaciones causadas por necesidades de los coros).

c) La realización de servicios no programados.

El tiempo que compensar será el siguiente:

– Para el apartado (a) las horas incrementadas.

– Para los apartados (b) y (c) las horas de servicio realizadas.

El tiempo modificado será compensado:

– Para los apartados (a) y (b), bien con el pago del 25 % de recargo sobre el precio hora base, bien, destinándolo a la bolsa de horas que se regula en el art. 62 aplicando un coeficiente del 1,75.

– Para el apartado (c), tendrán la consideración de horas extraordinarias abonándose o compensándose como tales y, por tanto, no entrarán en el cómputo horario.

3. Límites horarios.

– El trabajo se efectuará a razón de uno o dos servicios por día, pudiendo tener lugar entre las 9:00 horas y la 01:15 horas del día siguiente. Estos servicios podrán tener una duración desde dos a cuatro e incluso cinco horas en caso de ensayos generales, pregenerales o espectáculos líricos. Los ensayos generales que no tengan prefijada la hora de finalización se considerarán finalizados en el momento de terminar la representación.

– Los servicios de ensayos de mañana no podrán terminar más tarde de las 14 horas 30 minutos y los de la tarde iniciarse antes de las 15:00 horas.

– A efectos del cómputo de horas de conjunto trabajadas, a las horas o fracciones posteriores a las veinticuatro horas se les aplicará el coeficiente de 1,5. Las fracciones serán consideradas por bloques de cuarto de hora.

4. Interrupción y descansos.

Entre dos servicios debe haber una interrupción de 2 horas como mínimo.

Los servicios de 2 horas comprenden un descanso de 15 minutos, los de 3 horas un descanso de 20 minutos, los de 3 horas y media un descanso de 25 minutos, o bien uno de 15 y otro de 10, los de 4 horas dos pausas de 15 minutos o una de 30 minutos y los de 5 horas dos de 20 minutos o una de 40 minutos; en servicios de distinta duración a la especificada se efectuarán los descansos de forma proporcional a las descritas anteriormente. Los descansos serán fijados por el director o Asesor Musical que establecerá el primer descanso transcurri-

mar minutuko atsedernaldia ezarriko du, hurrengo 5. puntuan ezarritakoari kalterik egin gabe. Entsegu jarraituaren denboramuga horrek ez du eraginik izango dinamika eszenaren mende dagoen entseguetan (opera, balleta edo antzekoa).

#### 5. Zerbitzuen luzapena.

Musika-zuzendariak, beharrezkotzat joz gero, entsegu-zerbitzuak luza ditzake (ordu-laurdeneko luzapena edo bi ordu-laurdenekoa), enpresaren zuzendaritzarekin aldeztu aurretik adostuta, eta Orkestrari aurreko eguneko entsegu amaitzean eman beharko zaio luzapen horren berri, edo bestela, zerbitzua luzatu nahi den entseguko atsedernaldietan.

Ordu-laurden bakoitza edo horren zatia oinarrizko ordu-prezioa aplikatuta ordainduko da, edo bestela, ordu-poltsan sartuko da gehiegizko denbora, 1,75eko koefizientea aplikatu ondoren.

#### 6. Zerbitzuak lekuz aldatzea.

Aire zabalean egiteko programatuta dagoen zerbitzu bat lekuz aldatzeko, egunean bertan, eguraldi txarra dela-eta edo enpresaren zuzendaritzak arrazoikotzat jotako beste edozein arrazoiengatik, areto estali edo itxi batera.

#### 7. Proba akustikoa.

Proba akustikoak hogeita hamar minutuko iraupena izango du eta kendu egingo da honako kasu hauetan:

– Kontzertua entsegu orokorraren toki berean egiten denean.

– Programa bereko bigarren kontzertuak edo hortik aurrerakoak direnean eta lokal berean egitekoak direnean.

– Musika-zuzendariak edo -aholkulariak egokitzen jotzen denean.

Proba akustikoaren amaieraren eta kontzertuaren hasieraren artean berrogeita bost minutuko geldialdi bat egingo da.

Proba akustikoa ez da zerbitzutzat hartzen, eta beraz, egun berean bi zerbitzu gehi proba akustiko bat egin daitezke.

#### 8. Zerbitzuak bertan behera uztea. Informazioa.

Zerbitzu bat bertan behera uzteko, egin behar zen eguna baino berrogeita zortzi ordu lehenago adierazi beharko da beranduenez. Bestela, zerbitzuak egin direla iritziko da zenbaketari dagokionez.

### 35. artikulua. Bidaiak, birak eta irtenaldiak.

#### 1. Definizioa.

– Bidaia: Donostiatik kanpo egin beharreko jarduera, gaua Donostiatik kanpo ematea beharrezkoa ez denean.

– Irtenaldia: Donostiatik kanpo egin beharreko jarduera, gaua Donostiatik kanpo ematea beharrezkoa denean.

– Bira: Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egin beharreko jarduera, gau bat baino gehiago EAETik kanpo ematea beharrezkoa denean.

#### 2. Bidaiak.

– Joateko bidaia baten iraupena hiru ordu gorakoa bada, ordubeteko atsedena egin beharko da emanaldia egingo den tokira iritsi eta proba akustikoa egin edo zerbitzua eman baino lehen.

– Joan-etorrian hiru ordu baino gutxiago igaro badira, 15 minutuko atsedernaldia egin beharko da Akustika Proba edo Zerbitzura iritsi eta hasi bitartean.

– Astebetean ez dira egingo joatean eta etortzean 70 km-tik gora duten hiru bidaia baino gehiago. ABAO-OLBEren jardueretara joateko asteak muga horretatik salbuetsita geratuko dira; halakoetan, bost bidaia egin ahalko dira gehienez.

da no más de una hora y treinta minutos, sin perjuicio de lo establecido en el punto 5 siguiente. Este límite de tiempo de ensayo continuado no afectará a ensayos en los que la dinámica esté supeditada a la escena (ópera, ballet o similar).

#### 5. Prolongación Servicios.

El Director Musical puede eventualmente prolongar los servicios de ensayo en uno o dos cuartos de hora suplementarios, previo acuerdo con la Dirección de la Empresa, y se procurará comunicar a la Orquesta al finalizar el ensayo del día anterior, o en las pausas del mismo ensayo donde se quiera prolongar el servicio.

Cada cuarto de hora o fracción será retribuido con la aplicación correspondiente del precio hora/base, o bien se incluirá el tiempo suplementario en la bolsa de horas, tras aplicar el coeficiente 1,75.

#### 6. Traslado Servicios.

Un servicio programado al aire libre puede ser trasladado en el mismo día, por causa de mal tiempo u otra causa razonable a Juicio de la Dirección de la Empresa, a una sala cubierta o cerrada.

#### 7. Prueba acústica.

La prueba acústica tendrá una duración de treinta minutos y se suprimirá en los casos siguientes:

– Cuando el concierto se celebre en el mismo lugar que el ensayo general.

– Cuando se trate de segundos y ulteriores conciertos del mismo programa en el mismo local.

– Cuando el Director o Asesor Musical lo estime conveniente.

Entre la terminación de la prueba acústica y el comienzo del concierto habrá una pausa de cuarenta y cinco minutos.

La prueba acústica no tiene consideración de servicio, por lo que en un mismo día pueden realizarse dos servicios más una prueba acústica.

#### 8. Cancelación servicios. Información.

La cancelación de servicios deberá ser comunicada con una antelación mínima de cuarenta y ocho horas a su celebración. En otro caso, los servicios se considerarán como realizados a efectos de su cómputo.

### Artículo 35. Desplazamientos y giras y salidas.

#### 1. Definición.

– Desplazamiento: es la actividad que se efectúa fuera de San Sebastián, sin necesidad de pernoctar.

– Salida: es la actividad que se efectúa fuera de San Sebastián y requiere una pernocta.

– Gira: es la actividad que se efectúa fuera de la Comunidad Autónoma, cuando es necesaria más de una pernocta.

#### 2. Desplazamientos.

– Si el tiempo de un desplazamiento de ida excede de tres horas, deberá mediar un descanso de una hora entre la llegada al lugar de la actuación y el inicio de la prueba acústica o del servicio.

– Si el tiempo de desplazamiento de ida es inferior a tres horas, deberá mediar un descanso de 15 minutos entre la llegada y el inicio de la Prueba Acústica o el Servicio.

– No se efectuarán en una semana más de tres viajes que superen los 70 km ida y vuelta por viaje. Quedan exceptuadas las semanas en que se acuda a actividades de la A.B.A.O., en las que el número de viajes no podrá exceder de cinco.

– Urtean behin ABAO-OLBERentzat astean egin daitezkeen 4 bidaiak Bilboko Arriaga Antzokirako asimilatu ahal izango dira.

Irtenaldietan gau bat kanpo eman behar denez, behean adierazitako moduan egingo da zenbaketa.

Lehenengo eguna: Orduak honela zenbatuko dira: Donostia hiritik ateratzeko ordutik gaua emango den ostatura iristeko ordura bitarteko orduak gehi proba akustikorako zitazio-ordutik proba akustikoa amaitzeko ordura bitarteko orduak. Zerbitzuaren hasieran edo amaieran garraioa erabili behar izanez gero, gainera, estatutik irtetetik zerbitzua eman beharreko tokira iritsi bitarteko denbora ere zenbatuko da, baita kontzertua amaitu eta garraio kolektibo berebanean ostatura iritsi bitartekoa ere.

Bigarren eguna: Bidaia-orduak zenbatuko dira, eta hala bada-gokio, kontzertuan eta proba akustikoan emandako orduak ere bai.

### 3. Garraioa bidaietan.

Gaua egoitza-hiritik kanpo ematea eskatzen duten bidaietan, garraio-zerbitzu egokiak ipiniko ditu langileentzat enpresaren zuzendaritzak.

Zerbitzu horiek –nola publikoak hala pribatuak– baliatzen dituzten langileek euren gain hartzen dituzte horren arriskuak eta erantzukizuna, eta kontzeptu horrengatik ezein konpentsazio jasotzeko eskubiderik ez dute izango.

### 4. Birak eta irtenaldiak.

– Bidaiak garraio kolektiboan egingo dira beti, baina egoera pertsonalak kontutan hartuko dira. Horretarako, enpresak lokomozio-baliabide egokiak izango ditu edo, bestela, behar diren txartelak emango ditu. Trena erabiltzen denean, lehen mailan bidaiatuko da eta gaueko bidaiak direnean, berriz, ohe-bagoian.

– Bira eta irtenaldietan, asteko 40 orduak taldekoak izango dira, eta eguneko gehienekoa 8 ordu izango da. Ordu horiek zenbatzeko, zazpi eguneko astea hartuko da kontuan, irteeragunetik aurrera zenbatzen hasita.

– Orkestrak 5 ordu arteko lekualdaketak egiten dituenean, zitazioa egiten denetik helmugara iritsi arte zenbatuta, laneguna saio bakar batekoa izango da (entsegua edo kontzertua). Zerbitzurik ez da programatuko bidaia batentzat aurreikusitako iraupena bost ordutik gorakoa denean. Orkestraren zuzendaritzaz aparteko arrazoiak direla-eta bidaiaren iraupena bost ordutik gorakoa bada, zerbitzua egingo da eta gehiegizko orduak ordu-poltsan zenbatuko dira, 1,75eko koefizientearekin.

– Bira edo irtenaldia 6 egunetik gorakoa denean, atsedengun bat –asteko atsedenditatzat hartuko ez dena– egingo da, zorrozki, lan egindako sei egun bakoitzeko. Egun horretan ez da inolako bidaia edo emanaldirik egingo.

– Langileari legez dagozkion asteko atsedendialdiak bira edo irtenalditik itzultzean hartuko dira.

– Bira edo irtenaldi bakoitzetik itzultzean, atsedeneko egun erdi bat hartuko da biran emandako astebete bakoitzeko eta astebetetik beherako aldi bakoitzeko, eta aurreko paragrafoan aipatutako asteko atsedendialdiei gehituko zaizkie aste-erdi horiek.

### 36. artikulua. Ostatu-kondizioak bira eta irtenaldietan.

Bira eta irtenaldietan, arau orokor gisa, ostatua banako geletan izan dadin saiaturiko da enpresa; halako kasuetan, langileak ez du ostatu-dietarik jasoko.

Zuzendaritzak irizten badu zirkunstantziek –nola ekonomikoek hala ekoizpenarekin loturikoek– oztopatu egiten dutela bidaiatu duen talde guztiari banako geletan ostatu ematea, enpresak horren berri emango dio enpresa-batzordeari, eta ostatua gela bikoitzetan emango zaie langileei; enpresak berak gain-

– En una ocasión al año se podrá asimilar para el Teatro Arriaga de Bilbao los 4 viajes por semana que se pueden efectuar para ABAO.

En las salidas, por requerir una pernocta, el cómputo se realizará de la siguiente forma.

Primer día: Se computarán las horas desde la salida de la ciudad de San Sebastián hasta la llegada al alojamiento donde se realice la pernocta y desde la hora de citación para la prueba acústica o servicio hasta la terminación de éste. Si tanto a la iniciación del servicio como a su terminación fuera necesario el uso del transporte, se computará, además, el tiempo desde la salida del alojamiento hasta el lugar de prestación del correspondiente servicio, así como desde la terminación del concierto hasta la llegada al alojamiento en el mismo transporte colectivo.

Segundo día: Se computarán las horas de viaje, incluyendo en su caso las horas destinadas al concierto y a la prueba acústica, si ésta fuera necesaria.

### 3. Transporte desplazamientos.

La Dirección de la Empresa procurará para los desplazamientos fuera de la ciudad sede, servicios de transporte adecuados para el personal.

El personal que utilice otros servicios, bien sean públicos o privados, lo hará bajo su exclusivo riesgo y responsabilidad sin que tenga derecho a compensación alguna por este concepto.

### 4. Giras y Salidas.

– Los desplazamientos se realizarán siempre en transporte colectivo, si bien las situaciones personales serán consideradas. A tal fin, la Empresa dispondrá los medios de locomoción apropiados o facilitará los billetes o pasajes correspondientes. Cuando se utilice el ferrocarril, se viajará en primera clase y en los casos de viajes nocturnos, en coche-cama.

– Durante las giras y salidas, las 40 horas semanales serán de conjunto, siendo 8 horas el máximo diario. A efectos del cómputo, se considerará la semana de 7 días, contados a partir del día de salida.

– Cuando la Orquesta realice desplazamientos de hasta 5 horas, contadas desde el momento de la citación hasta la llegada, la jornada de trabajo se reducirá a una sola sesión, sea ensayo o concierto. No se programará ningún servicio cuando el tiempo previsto de duración de un desplazamiento sea superior a cinco horas. Si por causas ajenas a la Dirección de la Orquesta el tiempo de desplazamiento real superase las cinco horas, el servicio se realizará y el exceso de horas será computado en la bolsa de horas con un coeficiente del 1,75.

– Cuando la gira o salida sea de duración superior a 6 días, se observará rigurosamente un día de descanso, que no tendrá consideración de descanso semanal, por cada seis días trabajados. Durante este día no se realizarán desplazamientos o actuaciones de cualquier índole.

– Los descansos semanales legales se disfrutarán a la vuelta de la gira o salida.

– Al regreso de cada gira o salida, se disfrutará de medio día de descanso por cada semana o fracción de semana de gira, el cual se unirá a los descansos semanales del párrafo anterior.

### Artículo 36. Condiciones de alojamiento en giras y salidas.

En giras y salidas, como norma general la Empresa procurará que el alojamiento sea en habitaciones individuales; en estos casos, no procederá la percepción de dieta por alojamiento.

Si a criterio de la Dirección las circunstancias (económicas o de producción) dificultan alojar todo el grupo desplazado en habitaciones individuales, la Empresa informará al Comité de Empresa y el alojamiento se realizará en habitaciones dobles que la propia empresa supervise. Aun así, el personal que a pe-

begiratuko ditu gela bikoitz horiek. Hala eta guztiz ere, banako geletan ostatu hartzeko eskatzen duten langileek dagokion gehigarria –sekula ez 25 €-tik gorakoa pertsona eta egun bakoitzeko– ordaindu beharko dute (EAEko Aurrekontuen Legeetan ezarritako igoera-ehuneko jakin baten arabera areagotuko dira zenbateko horiek). Eskabide horrek homogeneoa izan beharko du bira osoan. Eskubide hori betetzeagatik eta hotel-edukierarekin loturiko arrazoiak direla-eta beste hotel bat kontratatu behar bada, lehenengo hotela hartuko da kontuan ordu-zenbaketatara, hala badagokio. Halako kasuetan, ostatua baliatzen ez duten langileek dieta bat –I. eranskinean hitzartua– jasoko dute kontzeptu horrengatik. Arestian aipaturiko bi kasuetan, bikote diren langileak gela bikoitzetan hartuko dute ostatu, behar bezala justifikatutako kausak ez badaude.

#### IV. TITULUA

##### ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

###### 37. artikulua. Langile artistikoen estaldura-bermeak.

Langile artistikoen estalduran denborak eta kausak finkatzeko aldera, honako hauek ezartzen dira:

1. Eszedentzia guztiak, arrazoia edozein dela ere, eta ikasketetarako baimenak –horien iraupena edozein dela ere– bitarteko kontratu edo lankidetzakontratu bidez kontratatutako langileekin estaliko dira, programa bakoitzerako ezarritako plantilla edozein dela ere (haize-tresnen, perkusio-tresnen eta harparen kasuan, plantilla nominatiboko aurreikuspenak –denboraldiaren hasieran entregatuak– kontuan hartuko dira), eskatzailea bere lanpostura itzultzen den arte.

2. Haurdunaldi arriskutsu, amatasun, aitatasun eta edoskitzeagatik baja guztiak gertatzen diren unean bertan estaliko dira bitarteko kontratu edo lankidetzakontratu bidez kontratatutako langileekin, programa bakoitzerako ezarritako plantilla edozein dela ere (haize-tresnen, perkusio-tresnen eta harparen kasuan, plantilla nominatiboko aurreikuspenak –denboraldiaren hasieran entregatuak– kontuan hartuko dira), eskatzailea bere lanpostura itzultzen den arte.

3. Lanaldi-murrizketa guztiak, kausa eta murrizketa-ehunekoa edozein direla ere, gertatzen diren unean bertan estaliko dira bitarteko kontratu edo lankidetzakontratu bidez kontratatutako langileekin, programa bakoitzerako ezarritako plantilla edozein dela ere (haize-tresnen, perkusio-tresnen eta harparen kasuan, plantilla nominatiboko aurreikuspenak –denboraldiaren hasieran entregatuak– kontuan hartuko dira), lanaldi-murrizketa horrek dirauen bitartean.

4. Kontzertino-laguntzaileak kontzertino-zereginak egiten dituen bakoitzean, lehen biolinaren postua beteko duen lankide bat kontratatuko da lehengo entsegu-egunetik aurrera eta kontzertino-zereginak egin bitartean, salbu eta lehen biolinaren plantilla bederatzi kidekoa edo gutxiagokoa denean.

5. Laneko gaixotasun edo istripuek eragindako iraupen luzeko bajak –60 egunetik gorakoak– 61. egunetik aurrera estaliko dira bitarteko kontratu edo lankidetzakontratu bidez kontratatutako langileekin, programa bakoitzerako ezarritako plantilla edozein dela ere (haize-tresnen, perkusio-tresnen eta harparen kasuan, plantilla nominatiboko aurreikuspenak –denboraldiaren hasieran entregatuak– kontuan hartuko dira), bajaran zegoen langile hura bere lanpostura itzultzen den arte. 61. eguna entsegu-eguna bada, kontratazioa programa hori hasten denean egingo da, 60 egun horiek bete gabe egonik ere. 61. eguna kontzertuetarako aldiaren bada edo publikoari irekitako entsegu orokorra bada, kontratazioa hurrengo programaren hasieran egingo da, 60 egun horiek gaindituta ere.

###### 38. artikulua. Taldeko zerbitzuen garapena.

Langile artistikoek behar bezala prestatuta izan beharko dute euren zati musikala hura antzetzeko den lehenengo entsegu baina lehen.

Propia solicitatzen alocarse en habitación individual, deberá abonar el suplemento correspondiente que no podrá ser superior a 25 € por persona/día (estos importes se incrementarán según el tanto por ciento de incremento que se establezca en las Leyes de Presupuestos de la CAV). La solicitud deberá ser homogénea en toda la gira. Si por cumplir con este derecho, y por problemas de capacidad hotelera se debiera contratar un segundo hotel más, se considerará el primer hotel a los efectos de cómputos horarios si proceden. En estos casos el personal que no utilice el alojamiento percibirá la dieta que por este concepto se estipula en el anexo I. En ambos supuestos indicados anteriormente, los trabajadores que sean pareja se alojarán en habitaciones dobles salvo causa justificada.

#### TÍTULO IV

##### DERECHOS Y DEBERES

###### Artículo 37. Garantías de cobertura del personal artístico.

Con el objeto de fijar los tiempos y causas en las coberturas del personal artístico, se establece que:

1. Todas las excedencias, sea por el motivo que sea, así como los permisos por estudios independientemente de su duración, serán cubiertos desde el momento en el que se produzcan, por personal contratado en interinidad o colaborador independientemente de la plantilla establecida para cada programa (en el caso de los vientos / percusión / arpa, se tendrán en cuenta las previsiones de plantilla nominativa entregadas al comienzo de temporada), hasta el momento en el que el/la solicitante se reincorpore a su puesto de trabajo.

2. Todas las bajas por riesgo de embarazo, maternidad, paternidad, lactancia, serán cubiertas desde el momento en que se produzcan a través de un contrato de interinidad o colaborador, independientemente de la plantilla establecida para cada programa (en el caso de los vientos / percusión / arpa, se tendrán en cuenta las previsiones de plantilla nominativa entregadas al comienzo de temporada), hasta la reincorporación de la trabajador/a.

3. Todas las reducciones de jornada, independientemente de la causa que den origen a la misma y del porcentaje de reducción, serán cubiertas desde el momento en que se produzcan a través de un contrato de interinidad o colaborador independientemente de la plantilla establecida para cada programa (en el caso de los vientos / percusión / arpa, se tendrán en cuenta las previsiones de plantilla nominativa entregadas al comienzo de temporada), durante la duración de esta.

4. Siempre que el Ayuda de Concertino pase a realizar funciones de concertino, se contratará un colaborador para cubrir un puesto de primeros violines, desde el primer día de ensayo y mientras realice las funciones de concertino, excepto cuando la plantilla de primeros violines sea de nueve miembros o menor.

5. Las bajas por enfermedad o accidente de trabajo de larga duración que superen los 60 días, se cubrirán a partir del día 61 a través de un contrato de interinidad o de colaborador, independientemente de la plantilla establecida para cada programa (en el caso de los vientos / percusión / arpa, se tendrán en cuenta las previsiones de plantilla nominativa entregadas al comienzo de temporada), hasta que dicho trabajador/a se reincorpore a su puesto de trabajo. Si el día 61 coincide con un periodo de ensayos, la contratación se hará al comienzo de dicho programa, aunque no se hayan cumplido los 60 días. Si el día 61 coincide en periodo de conciertos o ensayo general con público, la contratación se hará al comienzo del siguiente programa, aunque se superen los 60 días.

###### Artículo 38. Desarrollo de los servicios de conjunto.

El personal artístico deberá tener preparado convenientemente su parte musical antes del primer ensayo en que ésta vaya a ser interpretada.

Zuzendariak irakasle bati eskatu ahalko dio entseatzen ari den zati jakin bat bakarka antzetzeko.

Langile artistikoek, hala eskatzen bazaie, euren parte-hartzea justifikatu beharko dute dagokion presentzia-orrian sinatuta edo sarrera-fitxa beteta. Langile batek presentzia-orrian ez badu sinatzen edo sarrera-fitxa ez badu betetzen, iritziko da ez dela joan zerbitzura.

Bestalde, eszenatokian edo pezoian geratzera derrigortuta egongo dira publikoaren txalok dirauten bitartean eta artisten azken eszenaratzerara arte.

**39. artikulua. Atalen komunikazio-betebeharrak.**

Langile artistikoek derrigorrean eman beharko diote errejido-reari, idazki bidez, lan-plana argitaratu eta zortzi eguneko epearen barnean, behar dituzten laguntza, material eta tresnen berri, baita librantzen berri ere, halakoak egonez gero. Zuzendaritzak erabaki ahalko du zer kanali jarraitu beharko zaion, arduradunek informazio hori dagokion garaian eta behar bezala eman dezaten.

Atal guztiek halako jakinarazpenen arduradun bat izan beharko dute. Ataleko arduradunik egon ezean, ataleko kide bati esleituko zaio ardura hori denboraldi bakoitzean; urtez urteko arduradunen hurrenkera finkatzeko, abizenen alfabeto-ordenari jarraituko zaio.

Premia horiek aurreko paragrafoan adierazitako epea –zortzi egun– igaro ondoren jakinarazten badira, enpresak ez ditu zertan kontuan hartu beharko.

**40. artikulua. Bateriaezintasunak. Baimenak.**

Euskadiko Orkestrako musikari titular guztiak dedikazio osoak izango dira.

Eraketa horretatik kanpoko edozein jarduera –hala nola irakaskuntza edo interpretazioa– gauzatzeko, enpresaren zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio alde aurretik.

Jarduera horiek bi kondizio bete beharko dituzte: batetik, kalitate-eskakizun jakin batzuk bete behar dituzte; bestetik, ez dute kolokan jarri behar artista Euskadiko Orkestrarako eskura garri egotea.

Jakinarazpena idazki bidez egin beharko da hiru egun lehenago.

Obligazio hori ez betetzea hutsegite larritzat joko da, eta gehieneko zehapena hiru egunez soldata eta lanik gabe uztea izango da.

**41. artikulua. Kontzertuetarako arropa.**

Artistek enpresak izendatutako jantziak erabili beharko dituzte kontzertuetan.

Bai errejidoreak bai muntatzaileek emanaldi-jantzia erabili behar dute kontzertuetan jendearen aurrean egiten dituzten jardueretan.

**42. artikulua. Kontzertuetarako sarrerak.**

Enpresak antolatutako kontzertuetan eta publikoari irekitako entseguetan, doako sarrera bat emango dio plantillako langile bakoitzari enpresak programa bakoitzeko, eta langileak beste sarrera bat merkeago eskuratzeko aukera ere izango du.

Orkestrak publikoari irekitako entsegu orokorretan parte hartzen duenean baina entsegu horiek ez daudenean enpresak antolatuta, enpresa saiatuko da langile bakoitzak doako gonbidapen bat izan dezan.

**43. artikulua. Euskalduntze-ikastaroen matrikula.**

Enpresak bere gain hartuko ditu langileen euskalduntze-ikastaroen gastuak, ikastaroa gainditu duela edo eskoletara erregulartasun eta ahaleginez joan delako ziurtagiria eskuratu ondoren.

El Director podrá solicitar de un profesor la interpretación individual de una determinada parte que se esté ensayando.

El personal artístico podrá ser requerido a justificar su participación firmando la correspondiente hoja de presencia o cumplimentando la ficha de entrada. La falta de firma en la hoja de presencia o la falta de cumplimentación de la ficha será considerada como inasistencia al servicio.

Por otro lado, estarán obligados a continuar en el escenario o foso mientras duren los aplausos del público, hasta la última salida a escena de los artistas.

**Artículo 39. Responsabilidad de comunicación de las secciones.**

El personal artístico está obligado a comunicar, por escrito al regidor, dentro de los ocho días posteriores a la publicación del plan de trabajo, las necesidades de ayudas, materiales e instrumentos, así como las libranzas, todo ello en su caso. La Dirección establecerá el canal a seguir para que los responsables cursen en tiempo y forma esta información.

Todas las secciones deberán tener un responsable de estas comunicaciones. De no haber responsable de la sección, la responsabilidad será asignada por temporada por un miembro de la sección diferente cada año comenzando alfabéticamente por apellido, y siguiendo correlativamente.

La comunicación de estas necesidades posterior a los ocho días señalados en el párrafo anterior no obligará a la Dirección a su consideración.

**Artículo 40. Incompatibilidades. Autorizaciones.**

Todos los músicos titulares de la Orquesta de Euskadi lo serán de plena dedicación.

Toda actividad musical fuera de esta formación, como la enseñanza o la interpretación, deberá realizarse previa comunicación a la Dirección de la Empresa.

Estas actividades deberán cumplir la doble condición de responder a algunas exigencias de calidad y de no comprometer por su importancia la disponibilidad del artista para la Orquesta de Euskadi.

La comunicación deberá hacerse por escrito con tres días de antelación.

El incumplimiento de esta obligación será calificado como falta grave con una sanción máxima de tres días de suspensión de empleo y sueldo.

**Artículo 41. Vestuario conciertos.**

El personal artístico deberá usar en los conciertos el vestuario designado por la Empresa.

Tanto el/la regidor/a como los/as montadores/as deben de usar en los conciertos traje de representación en sus actividades ante el público.

**Artículo 42. Localidades conciertos.**

En los conciertos y ensayos abiertos al público organizados por la empresa, ésta facilitará a cada trabajador de la plantilla una localidad gratuita por programa, teniendo opción a otra más a precio reducido.

Cuando la Orquesta intervenga en ensayos generales abiertos al público, no organizados por la empresa, ésta procurará que los organizadores faciliten una invitación por trabajador.

**Artículo 43. Matrícula cursos euskaldunización.**

La Empresa correrá con los gastos de matrícula del personal para cursos de euskaldunización, previa certificación de haber aprobado el curso o de haber asistido a clase con regularidad y aplicación.

HABEk homologaturiko euskaltegietan egin beharko dira ikastaroak, eta aurkezturiko ziurtagiriak bai HABEren ikuskaritzak bai enpresak egiaztatu ahal izango dituzte.

## V. TITULUA

### ORDAINSARIAK

#### 44. artikulua. *Batzar Nagusiaren ahalmena.*

Euskadiko Orkestra SA Sozietate Publikoren estatutuen arabera, batzar nagusiaren ahalmena da ordainsari-erregimena onestea.

#### 45. artikulua. *Urteko ordainsari-igoera.*

Oinarrizko soldatari eta gainerako ordainsari-kontzeptuei urtero aplikatu beharreko ordainsari-igoera Eusko Jaurlaritzak EAEko Administrazio Orokorraren mendeko sozietate publikoentarako urtero ezarritakoa izango da, eta behin hark onetsi duela ordainduko da. Salbuespen gisa, igoera hori aplikatu egin beharko dela erabaki da, alde batera utzita hitzarmena amaituta eta/do negoziazio-fasean ote dagoen.

#### 46. artikulua. *Erregimenen egitura.*

Ordainsarien egitura hau izango da:

- Ordainsariak-Erregularrak.
- Ordainsariak-Erdierregularrak.
- Ordainsariak-Ez erregularrak.
- Konpentsazio-osagarriak.

#### 47. artikulua. *Ordainsari motak.*

1. Ordainsari erregularrak honako hauez osatuta egongo dira:

- Oinarrizko soldata.
- Antzinasuna.
- Tresna-plusa.
- Produktibitate-plusa.
- Grabazio-plusa.

2. Ordainsari erdierregularra honako hauez osatuta egongo da:

- Jarduera-plusa.
- Zerbitzu bikoitza.

3. Ordainsari ez-erregularrek hauek hartuko dituzte barnean:

- Ordezkapenak.
- Zerbitzu bereziak.

Eszenako zerbitzuak.

Tresna bereziak.

Talde txikietan parte hartzea.

- Adostutako bestelako plus batzuk.
- Aparteko orduak.
- Sariak.
- Epaimahai-plusa.

4. Konpentsazio-osagarriek hauek hartuko dituzte barne:

- Bidaiengatiko dietak.
- Kilometraje-gastuak.

#### 48. artikulua. *Oinarrizko soldata.*

Lanbide-kategoria bakoitzerako oinarrizko soldata hitzarmen kolektibo honen I. eranskinean agertzen dena izango da, eta hamalau hileko soldata berdinetan banatuko da; hileko soldatetako bi ekaineko eta abenduko aparteko haborokinak dira.

Los cursos deberán desarrollarse en euskaltegis homologados por HABE, y los certificados que se presenten podrán ser comprobados tanto por la inspección de HABE como por la Empresa.

## TÍTULO V

### RETRIBUCIONES

#### Artículo 44. *Facultad Junta General.*

De acuerdo con los Estatutos de la Sociedad Pública «Orquesta de Euskadi, S.A.», es facultad de la Junta General la aprobación del régimen de retribuciones.

#### Artículo 45. *Incremento retributivo anual.*

El incremento retributivo anual aplicable al salario base y demás conceptos retributivos será el que determine anualmente el Gobierno Vasco para las sociedades públicas dependientes de la Administración General de la CAV, y se abonará una vez sea determinado por éste. Excepcionalmente, se acuerda que ello será de aplicación sin perjuicio de que el Convenio haya vencido o esté denunciado y/o en fase de negociación.

#### Artículo 46. *Estructura régimen.*

La estructura de retribuciones será la siguiente:

- Retribuciones-Regulares.
- Retribuciones-Semirregulares.
- Retribuciones-No regulares.
- Complementos de compensación.

#### Artículo 47. *Tipo retribuciones.*

1. Las retribuciones regulares estarán formadas por las siguientes:

- Salario base.
- Antigüedad.
- Plus de instrumento.
- Plus de productividad.
- Plus por grabación.

2. La retribución semirregular será:

- Plus de actividad.
- Doble servicio.

3. Las retribuciones no regulares comprenderán:

- Sustituciones y suplencias.
- Servicios especiales.

Servicios en escena.

Instrumentos especiales.

Participación en conjuntos reducidos.

- Otros pluses acordados.
- Horas extraordinarias.
- Premios.

– Plus de tribunal.

4. Los complementos de compensación comprenderán:

- Dietas por desplazamiento.
- Gastos kilometraje.

#### Artículo 48. *Salario base.*

